

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko urriaren 28tik azaroaren 1erako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: BPGd



### Datuaren analisisia

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta argitaratutako lehen kalkuluaren arabera, urteko hirugarren hiruhilekoan BPGd-a % 0,2 hazi zen Eurogunean, eta % 0,3 Europar Batasunean (EB). 2019ko bigarren hiruhilekoan, BPGd-a % 0,2 hazi zen, bai Eurogunean bai EBn. Hazkunde ekonomikoak, beraz, erritmo ia egonkorra izan du bi eskualdeetan. 2018ko hirugarren hiruhilekotik BPGd-ak % 1,1 egin zuen gora txanpon bakarraren herrialdeetan, eta % 1,4 EB osatzen duten estatuetan, aurreko hiruhilekoan % 1,2 eta % 1,4 igo ostean, hurrenez hurren.

### Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Euroguneak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: KPI



### Datuaren analisia


Euroguneko KPIa % 0,2koa izan zen urrian, aurreko hileko datu bera eta analistek espero zutena baino hamarren bat gehiago. Frantzian, esate baterako, urriko KPIa % 0,7ra jaitsi zen aurreko hileko eta esperotako % 0,9tik. Espainiako KPIa, bere datu aurreratuen arabera, egonkor mantendu zen urrian, % 0,1eko urte arteko tasa lortu baitzuen, irailean bezala. Mailarik baxuena 2016ko abuztutik. Datu aurreratuen arabera baita ere, KPI alemana % 1,1ean kokatu zen urrian, aurreko hilean baino hamarren bat gorago, merkatuko aurreikuspenekin bat etorritz.

### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

**AEB: BPGd**



### Datuaren analisia

Merkataritza Sailaren lehen kalkuluaren arabera, BPGd-a % 1,9ko urte arteko erritmoan hazi zen urteko hirugarren hiruhilekoan. Jaitsiera txikia izan zuen urteko bigarren laurdenean izandako % 2ko beherakadaren aldean, baina merkatuak espero zuen % 1,6a baino pixka bat handiagoa. Kontsumoak (produktuaren bi herena) % 2,9ko hedapena izan zuen, eta oraindik dinamismoa agertu arren, moteldu egin zen lehen hiruhilekotik (% 4,6). Kontsumoaren indarra langabezia-tasa txikian eta diru-sarreraren hobekuntza apalean oinarritzen da. Esportazioek % 0,7 egin zuten gora, eta inportazioek, aldiz, % 1,2. Bestalde, enpresen inbertsioak portaera negatiboa izan zuen, % 3 egin baitzuen behera. Gastu publikoak % 2 egin zuen gora, bigarren hiruhilekoko % 4,8aren aldean. Amaitzeko, inbentarioek, aurreko hiruhilekoan ez bezala, ez zuten hazkundera murriztu.

### Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herralde baten ekoizpena eta hazkundera ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



#### Datuaren analisisia

Estatu Batuetako langabezia-tasa % 3,5etik % 3,6ra igo zen urrian, baina minimoetatik hurbil dago oraindik. 128.000 lanpostu berri sortu ziren hilean, analistek aurreikusitako 85.000 enpleguen gainetik. Beste alderdi positibo bat batez besteko soldataren igoera izan zen, orduko 6 zentabo egin baitzuen gora urrian, 28,18 dolarrera iristeraino. Azken 12 hilabeteetan, soldatek % 3 egin dute gora. Lan-indarreko parte-hartze tasa, hau da, lanean edo enplegu bila dauden estatubatuarren proportzioa, % 63,2tik % 63,3ra igo zen.


#### Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.



## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisia



Ekonomia, Merkataritza eta Industria Ministerioaren arabera, industria-ekoizpena % 1,4 igo zen aurreko hiletik. 2018ko irailarekin alderatuz, adierazlea % 1,1 igo zen datu ofizialen arabera, abuztuan -% 1,2 jaitsi ondoren. Hazkundeari ekarpen handiena egin zioten sektoreak makinena oro har, makina elektrikoena eta komunikazioena izan ziren. Aldiz, eragin negatiboa izan zuten, besteak beste, sektore kimikoak, automobilgintzarenak eta aparatu elektronikoak.

### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: PMIak



### Datuaren analisisia

PMIaren datu mistoa. PMIaren adierazle ofizialaren arabera, manufacturen industria seigarren hilabetez jarraian egon zen 50eko mailaren azpitik. Izan ere, erreferentzia-adierazlea 49,3 puntutan kokatu zen (espero zena: 49,3), aurreko hilean baino bost hamarren beherago, susperraldi zantzuak erakutsi zituenean. Orduko hartan, hiru hamarren igo zen, 49,8 puntuetaraino. Nolanahi ere, Caixin manufacturen PMIa aurreko hileko 51,4tik eta esperotako 51tik urriko 51,7ra igo zen.

Manufacturena ez den industriari dagokionez, erosketen indize nagusia (PMIa) 52,8 puntutan kokatu zen urrian; eta, beraz, ia puntu bat galdu zuen iraileko 53,7tik. Adierazlearen daturik baxuena azken hiru urtetan.

### Adierazlearen azalpena

PMI Manufactura/Zerbitzuak indizeak hileroko erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufacturen sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea,

ekonomia uzkurtzen ari den seinale.



## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
11/04	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	47.5
11/04	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	50.5
11/04	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	41.9
11/04	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	45.7
11/04	Eurogunea	Sentix inbertitzailearen konfiantza	-13.8
11/04	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 1.1
11/05	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
11/05	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	51.1
11/05	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI	49.7
11/05	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	49.4
11/05	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$52.5b
11/05	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	51.0
11/05	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
11/06	Japonia	Japoniako Jibun Bank Composite PMIa	--
11/06	Japonia	Japoniako Jibun Bank Zerbitzuen PMIa	--
11/06	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	51.5
11/06	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	% 1.5
11/06	Espainia	Markit PMI zerbitzuak Espainia	52.8
11/06	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	52.9
11/06	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.6
11/06	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	51.2
11/06	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	48.6
11/06	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	51.8
11/06	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	50.2
11/06	Eurogunea	Urte arteko xehakako salmentak	% 2.4
11/07	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	-% 4.4
11/07	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.750
11/07	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	215k
11/08	Alemania	Balantza komertziala	19.5b
11/08	Frantzia	Balantza komertziala	-4964m
11/08	Frantzia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 0.3
11/08	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	95.5
11/08	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
11/08	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--
11/08	Txina	Urte arteko esportazioak	-% 4.5
11/08	Txina	Urte arteko inportazioak	-% 8.0
11/08	Txina	Balantza komertziala	\$40.10b

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSA:

Itxiera lauen astea, edo beheranzko mugimendu arinena Europako errenta aldakorrean. Nabarmentzekoa izan zen Ibx 35 indizearen jaitsiera (-% 1,08), Santander bankuak bere emaitzak argitaratu zituenean merkatuak ezarri zion zigorraren ondorioz. Gainerako burtsek balioa handitu zuten, eta S&P eta Nasdaq indizeek maximo historiko berriak lortu zituzten AEBetan. Brexitaz eta AEBen eta Txinaren arteko negoziazio komertzialez gain, argitaratutako datu makroak, Fed-en bilera eta enpresen emaitzen argitalpena izan ziren asteko protagonistak. Erresuma Batuen irteerari dagokionez, EBk Brexita hiru hilabetez atzeratzea onartu zuen, urtarrilaren 31ra arte, eta parlamentu britainiarrak hauteskundeak abenduaren 12ra aurreratzea erabaki zuen. Horiek horrela, baliteke irteera Johnsonek sinatutako akordioarekin egitea, edo Brexita ez gauzatzea, azkenean erreferendum baten alde egiten bada. Arlo komertzialean, bertan behera geratu zen Estatu Batuetako eta Txinako agintariak bildu behar zituen Asia eta Ozeano Bareko Ekonomia Elkarlanerako foroa. Hala ere, bi alderdiak baikor agertu ziren Lehen Faseko akordio komertziala hilabete honetan bertan ixteari dagokionez. FEDek, bestalde, 25 op jaitsi zituen AEBetako interes-tasak, espero zen moduan. Powell-ek adierazle ekonomikoen bilakaeraren baldintzapean jarri zituen hurrengo mugimenduak. Nolanahi ere, adierazi zuen nekez egongo dela murrizketa gehigarririk, herrialdeko ekonomiak orain duen indarra ikusita. Makro ingurunean, manuflakturen datu mistoak izan genituen Txinan, eta tonu ona AEBetako BPGd-aren, enpleguaren eta manuflakturen ISMaren adierazleetan. European, aldiz, BPGd-ak bere hazkunde-erritmo ahulari eutsi zion, aurreko hiruhilekoari dagokionez. Azkenik, enpresen emaitzen argitalpenari begira, eta kontuan hartuta dagoeneko AEBetako emaitzen bi heren eta Europako % 58 ezagutzen ditugula, balantzea positiboa izan da AEBetarako (% 5eko ezusteko atsegina) eta aurreikusitakoa Europarako.

## ERRENTA FINKOIA:

European, inbertitzaileen zuhurtziak zor publikoaren erosketak bultzatu zituen, nahiz eta mugimenduak garrantzi gutxikoak izan. Bund alemanak -% 0,38an amaitu zuen astea (-2 op), eta 10 urterako bonu espainiarrak aurreko asteko maila berean kokatu zen, % 0,27an. AEBetan gehiago jaitsi ziren tasak, eta 10 urterako treasury bonuaren errentagarritasuna % 1,71n kokatu zen (-8 op). FEDen mezu ez hain bigunagatik ere, merkatuak tasen beste jaitsiera bat espero du hurrengo urterako. Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

## DIBISAK / LEHENGAIK:

FEDen bileraren ostean, dolarra ahuldu egin zen euroaren aurrean, eta Europako dibisak 1,11 \$/€ maila gainditu zuen. Liberak ez zuen ia erreakziorik izan Brexitaren nobedadeen aurrean, eta pixka bat indartu zen euroaren aurrean. Lehengaiari begira, petrolioaren prezioa % 0,34 igo zen, arlo komertzialaren egoera onaren aurrean, espero zena baino gehiago hazi ziren petrolio gordinaren inbentarioen datuak indargabetuz. Urrea, bestalde, % 0,65 igo zen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
MSCI WORLD (Local)	1.723,96	1,11	19,60
IBEX 35	9.328,00	-1,08	9,23
DJ EURO STOXX 50	3.623,74	-0,03	20,73
DJ STOXX 50	3.284,15	-0,04	18,99
FTSE	7.302,42	-0,30	8,54
S&P 500	3.066,91	1,47	22,34
Dow Jones	27.347,36	1,44	17,23
NASDAQ	8.386,40	1,74	26,39
NIKKEI 225	22.850,77	0,22	14,17
MSCI GORAKORRAK (Lo)	58.302,04	1,15	9,14
MEXBOL	43.814,55	0,98	5,22
BOVESPA	108.195,60	0,77	23,11
SHANGHAI	3.099,28	0,11	18,68
Errusia Rts Mosku	1.455,44	2,41	36,19

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,66	0,00	-0,05
ESPAINIA 2 URTE	-0,43	-0,04	-0,19
AEB 2 URTE	1,55	-0,07	-0,94
ALEMANIA 10 URTE	-0,38	-0,02	-0,62
ESPAINIA 10 URTE	0,27	0,00	-1,14
AEB 10 URTE	1,71	-0,08	-0,97
ALEMANIA 30 URTE	0,15	-0,02	-0,73
ESPAINIA 30 URTE	1,17	0,00	-1,44
AEB 30 URTE	2,19	-0,10	-0,82
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	50,25	-0,30	-38,12
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	233,34	5,08	-120,35

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,12	0,78	-2,64
Yena / Euroa	120,80	0,32	-3,89
Libera / Euroa	0,86	-0,18	-4,00

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	61,69	0,34	16,02
Urrea	1.514,40	0,65	18,09

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.